



ELISABETH BERKLANDER  
GOBIERNO VASCO

# ELIKADURA KATEAREN LEGEAREN FUNTSEZKO PUNTUAK



# ELIKADURA KATEAREN LEGEA

12/2013 Legea, abuztuaren 2koa,  
elikadura katearen funtzionamendua hobetzeko neurriei buruzkoa.





# ZEIN DA APLIKAZIO EREMUA?

- Elikadura kateko operadoreen arteko **merkataritza-eragiketa** guztiak, ekoizpenetik banaketaraino.
- Nekazaritzako eta elikagaigintzako produktuak (animalia biziak eta pentsuak barne).
- Eragiketa komertzialak > **1.000€**

# Euskadiko Agintaritza Betearazlea:

## Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritza



# Elikadura Katearen Legea **betetzea**:

## BETEBEHARRAK

- Kontratu guztiak idatziz formalizatu behar dira **entrega egin aurretik**.
- Hitzartutako prezioak **ekoizpen-/erosketa- kostuak** estaltzen dituela egiaztatu behar da.
- **Ordainketa-epeak** bete behar dira:
  - 30 egun gehienez produktu galkorrak.
  - 60 egun gehienez produktu ez-galkorrak.
- Dokumentazio guztia **4 urtez** gorde behar da.
- **Kontratuen erregistroa** 2023-06-30etik aurrera.

# Elikadura Katearen Legearen **betetzea**:

## DEBEKATUTAKO PRAKTIKAK

- Katearen **balioa suntsitzea**.
- Produktuen irudian edo prezioan **nahastea eragiten duten promozioak** egitea.
- **Promozio-itunen** arriskua katearen aurreko mailetan jasanaraztea.



# NOLA FORMALIZATU BEHAR DIRA ELIKADURA KONTRATUAK?

Idatziz.

Entrega egin aurretik.

Merkaturatze-fase guztietan.

Bi aldeek sinatutako kopia gorde.

Kontratua idatziz formalizatzeko salbuespenak:

- 1.000€-tik beherako salerosketa
- Eskurako ordaiketa, faktura egiaztagarriarekin.
- Arrantza- eta akuikultura-sektoreko produktuen lehen salmenta, beheranzko enkaratearen bidez eta fakturarekin.
- Bazkideek kooperatibei edo beste elkarte batzuei entregatzea, estatutuetan jasotakoaren arabera.
- Ostalaritza eta jatetxeak <10M€ eta ostatu-zerbitzuak <50M€ fakturazioarekin.



# NOLA HASI BEHAR DA ETA ZENBAT IRAUTEN DU KONTRATUAREN NEGOZIAZIO FASEAK?

Negoiazioa **aldez aurretik** egin behar da, eta **behar besteko denboraz**.



**Kontratu berriak** (iraupena  $\geq 1$  urte):  
Gehienez 3 hilabete.

**Kontratua berritzea:**

Indarrean dagoen kontratua amaitu aurretik edo hurrengo 2 hilabeteetan.



Negoiazio-epearen zenbaketa noiz hasten den zehazteko, erreferentzia gisa har daiteke alderdiak negoziatioari ekiteko harremanetan jartzen diren lehen mezu elektronikoaren bidalketa-data.



# ZEIN DA KONTRATUEK IZAN BEHAR DUTEN GUTXIENENKO INFORMAZIO EDUKIA?

1. Alderdi kontratatzaileen **identifikazioa**.
2. **Kontratuaren xedea**, kontratatutako kategoriak eta erreferentziak adierazita; hauek ere eskabide-aginduarekin zehaztu ahal izango dira.
3. **Kontratuaren prezioa**, ordainketa guztiak berariaz adierazita, deskontuak barne, zenbateko finko edo aldakorrean zehaztuko direnak.
4. **Ordaintzeko baldintzak**.
5. Produktuak **entregatzeko eta eskura jartzeko baldintzak**.
6. Alderdi kontratatzaileen **eskubideak eta betebeharrak**.
7. Alderdiek **elkarri eman behar dioten informazioa**, beren kontratu-betebeharrak betetzeko.
8. **Kontratuaren iraupena**, indarrean jarriko den eguna eta berritzeko eta aldatzeko baldintzak berariaz adieraziz.
9. **Kontratua amaitzeko arrazoiak**, formalizazioa eta ondorioak.
10. Adiskidetzea eta **gatazkak konpontzeko prozedura**.
11. Desadostasun edo gorabeherengatiko **penalizazioak**.
12. Ezinbesteko arrazoiengatiko **salbuespenak**.



# BA AL DAGO KONTRATUEN EREDU ESPEZIFIKORIK?



Edozein kontratu-eredu baliozkoa da, baldin eta legeak ezarritako gutxieneko elementuak biltzen baditu.

Sektore batzuetan Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioak homologatutako kontratuak daude.  
[Contratos tipo agroalimentarios \(mapa.gob.es\)](http://mapa.gob.es)



# BAZKIDEEK KOOPERATIBEI EDO ELKARTEEI ENTREGATUTAKO PRODUKTUAK PRODUKTU- SALMENTATZAT HARTZEN DIRA?

Harreman mota hauek ez dira eragiketa komertzialtzat hartzen:


Elkarteak EZ daude behartuta bazkide bakoitzarekin banakako kontratua sinatzera, baldin eta bazkide guztientzat loteslea den akordio bat badute.

Bazkideak aldeaz aurretik jakin behar du zein den kooperatibak erabiliko duen prozedura entregatutako produktuaren balioa zehazteko eta zein den likidazio-egutegia (**estatutuak**).

Akordioak edo estatutuak bazkideei **bidali zaizkiela frogatu beharko da**, bai eta horiek jaso direla ere.



# NOLA EZARRI BEHAR DA ELIKADURA- KONTRATUAREN PREZIOA?



- Faktore objektibo, egiaztagarri eta manipulaezinen arabera zehaztua. Hitzartutako prezioak kostuak estaltzen dituela aipatze hutsak ez du balio.
- Ezarri ahal diren **ordainketa** eta **deskontu guztiak** jaso behar ditu.
- Zenbateko **finkoa** edo prezio **aldakorra** izan daiteke (kalkulu-formula kontratuan agertu behar da).







# ZER GERTA DAITEKE ELIKADURA- KONTRATUAREN PREZIOA NEGOZIATZEAN?


😊 Erosleak eskainitako prezioa kostuak baino handiagoa da, eta gogobetetzen duen tartea eskeintzen dio.

😐 Eskainitako prezioa ekoizpen-kostu efektiboak baino handiagoa bada ere, ekoizlearen ustetan ez du tarte nahikorik usten bere jarduerarako. Legeak ez du kasu hau kontutan hartzen eta bi alderdien erabaki-gaitasunaren barne geratzen da.

😞 Eskainitako prezioak ez ditu ekoizlearen kostuak gainditzen. Honek erosleari jakinarazi behar dio eta berariaz adierazi behar da negoziazioan. Honetarako, jardunbide egokia da, adibidez, posta elektronikoz adieraztea eskainitako prezioak ez duela kostua estaltzen. Edozein arrazoi dela medio, lehen mailako ekoizlea kontratu hau sinatzera behartuta badago, prezioari buruzko klausula deuseza dela jakin behar du, eta egoitza judizialean eska dezakeela ordaina.

Lehen mailako ekoizle batek hurrengo operadoreari egiten dion **lehen salmentan**, ezarritako **prezioak ekoizleak bere gain hartutako kostu guztiak baino handiagoa izan behar du nahitaez.**

Prezio horretatik aurrera, **hurrengo katebegietan prezioa beti berdina edo handiagoa izango da.**





# NON SALATU?

- Pertsona juridikoak eta nortasun juridikorik gabeko erakundeak:
  - Erregistro elektronikoro korra - Egoitza elektronikoa - Euskadi.eus
- Pertsona fisikoak:
  - Erregistro elektronikoro korra - Egoitza elektronikoa - Euskadi.eus
  - Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren erregistro arrunta, Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritzari zuzendua.





# SALAKETAREN GUTXIENEN ELEMENTUAK

- Salatzailearen berriazko identifikazioa.
- Salatuaren berriazko identifikazioa.
- Salatzen ari diren gertakarien azalpen argia eta zehatza, beharrezko frogadokumentuekin batera.
- Gertakariak izan diren data zehatzak.

**Agintaritzak Betearazleak salatzailearen nortasuna babesteko neurri guztiak hartuko ditu.**



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

ELIKADURA, LANDA GARAPEN,  
NEKAZARITZA ETA  
ARRANTZA SAIA

DEPARTAMENTO DE ALIMENTACIÓN,  
DESARROLLO RURAL,  
AGRICULTURA Y PESCA

# Elikadura-kontratuen Erregistroa.

1028/2022 Errege Dekretua, abenduaren 20koa, Elikagai Kontratuen Erregistroa garatzen duena.



KONTRATU  
GUZTIAK  
INSKRIBATU  
BEHAR DIRA?

NORK  
INSKRIBATZEN  
DITU  
KONTRATUAK?

**EZ.** Lehen mailako ekoizleekin eta horien elkarteekin formalizatutako elikagai-kontratuak soilik.



Erosleak  
inskrribatu  
behar ditu.



# NON INSKRIBATU BEHAR DIRA KONTRATUAK?

“Registro de Contratos Alimentarios”  
aplikazio elektronikoan,  
[www.aica.gob.es](http://www.aica.gob.es).

REGISTRO DE  
CONTRATOS  
ALIMENTARIOS




Erosleek erregistroan alta eman behar diote beraien buruari elikagai-kontratuak inskribatu aurretik.





# NOIZ IZANGO DA NAHITAEZKOA KONTRATUAK INSKRIBATZEA?



## 2023ko ekainaren 30etik aurrera.




2023ko ekainaren 30a baino lehen formalizatutako elikadura-kontratuen kasuan, horiei buruzko **eranskinak, informazio osagarria eta aldaketak** soilik, kontratuaren xede den produktua entregatu aurretik.

Dokumentu guztiak **bi aldeek sinatu** behar dituzte.

Ez da erregistro publikoa.

Ez du informazio-helbururik, ezta helburu estatistikorik ere.

Zure datuak ezin izango dira ustiatu.



Kontratua erregistroan ez inskribatzea arau-hauste ARINA da.

Idatzizko kontratu bat ez formalizatzea arau-hauste LARRIA da.



EUSKADI  
EUSKADI  
EUSKADI

# Eskerrik asko.

Contacto:  
[katea@euskadi.eus](mailto:katea@euskadi.eus)